



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko azaroaren 2an

111 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, labore transgenikoei buruzko diagnostiko bat aurkezteko Parlamentuak eman agindua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, lan eskaintza publikoetan pertsona minusbaliatuentzako lanpostuak gordetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, NUPeko bioteknologia zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Nafarroako Odol-emaileen Elkartearentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, liburuzainentzako deialdiak geldiarazi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Beriain-Getze errepedearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, zenbait errepidetan “toki jakinetako ekintzen” egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Errepideei buruzko foru plana, 1998-2005” delakoaren zenbait espedienteren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, N-1 errepedean gertatzen diren istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Lizarrako saihesbidean izaten diren istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, pentsuek dituzten produktu transgenikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak izanen lukeen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak ekarriko lukeen plantilla handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, helikoptero medikalizatu bat ordaintzeko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteko beharrezko diren langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, larrialdi-sistemaren zerbitzuko helikoptero medikalizatuaren egoitzaren kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak lur hartzeko izanen dituen tokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak jardunen dueneko oinarritzko osasun eskualdeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, etxebizitzak zaharberritzearen arloko arauak aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, nekazaritzako aseguru konbinatuei emaniko dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, soldadutzaren ordezeko zerbitzurako eskainitako postuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, golf zelaiak eraikitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, abelbideei buruzko Foru Legea betetzearen gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, arrantzaleen elkarrekin eginiko kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Altsasuko tren geltokiaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Itoizko urtegia betetzeak kaltetzen dituen herriek izanen dituzten errepidezko komunikazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Osasun kontseiluen bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, eguzki-energia sustatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, “Andosilla II” izeneko lurzatiaren berrantolamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko pediatria onkologikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Audenasako langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, langile minusbaliatuentzat lanpostuak legez erreserbatu beharra betetzea dela-eta, enpresak ikuskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Arguedasen parke tematiko bat egiteko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, A-68ko Lodosako sarbideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, telefonia mugikorren antenen instalazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

Labore transgenikoei buruzko diagnostiko bat aurkezteko Parlamentuak eman agindua betetzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak labore transgenikoei buruzko diagnostiko bat aurkezteko Parlamentuak eman agindua betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du labore transgenikoei buruzko diagnostiko bat aurkezteko

Parlamentuak eman agindua betetzeari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Datu estatistiko ofizialak eskuratzeko aldi-aldian egiten den jarraipenak erakutsi digunez, Nafarroan hazien horniduran aritzen diren taldeek uko egin diote produktu transgenikoak merkaturatzeari. Hortaz, horrelako laboreak badirela esateko frogarik ez dagoenez ez dago arrazoirik Nafarroan transgenikoen agerpenari buruzko diagnostikoa egiteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Lan eskaintza publikoetan pertsona minusbaliatuentzako lanpostuak gordetzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak lan eskaintza publikoetan pertsona minusbaliatuentzako lanpostuak gordetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera bat egin du lan eskaintza publikoetan pertsona minusbaliatuentzako lanpostuak gordetzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Foru Gobernuak egindako lan-eskaintza publikoetan gordetzen ari al da legearen aginduz minusbaliatuentzat erreserbatu behar diren postuen ehuneko hainbestekoa?

Bai. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren zazpigarren xedapen gehigarria onetsi zenez geroztik Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen lan eskaintzetako lanpostuetatik ehuneko 3ko kupoa erresebatzen da, 100eko 33ko ezintasuna edo handiagoa duten pertsonak bete ditzaten.

Ildo horretan, azken lan eskaintza publikoak, 2000-2001ekoak alegia, urtarrilaren 22ko 16/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak (2001eko otsailaren 16ko 22. NAO), 3. artikuluan 49 lanpostu erresebatzen ditu txanda horretarako, eta horietatik 36 lan eskaintza horretakoak dira (1.193tatik % 3) eta 13 aurreko eskaintzetatik heldu direnak, eskaintzen zen lanpostu motagatik erreserba egiterik ez baitzen izan (1995, 97 eta 99koak, foruzain eta suhiltzaile lanpostuak besterik ez baitzen atera)

Foru Dekretu horren 3.2 artikulua xedatzen duenez, orain da garaia zehazteko, deialdiak onetsi baino lehen, zein lanpostu sartuko diren minusbaliatuentzako erreserba txandetan, lan eskaintzan finkatutako kopuru osoa egin arte, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere txostena luzatu ondotik.

2.- Lan eskaintza publikoa egin ondoren, egiak betetzen al dituzte aipaturiko postuak minusbaliotasunak dauzkaten pertsonak?

Minusbaliatuentzako erresebatutako lanpostuetatik asko, ez denak, betetzen dira, batez ere azken urteotako lan eskaintzetatik heldu direnak, horietan ahalegin berezia egin baita erresebak txandetan sartzen diren lanpostuek, haien ezagutza eta eskatutako titulazioa direla eta, beteak izateko ahalik eta aukera gehien izan dezaten, betiere Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren minusbaliatuentzako oinarrizko zentroaren txosten teknikoei jarraikiz. Halere, egia da zenbait kasutan lanpostuak ez direla betetzen, izangairik ez egoteagatik edo izangaiek ez dituztelako ezarritako probak gainditzen.

Ildo horretan, minusbaliatuen "aldeko diskriminazioa" sendotu eta administrazioan lanpostuak eskura ditzaten laguntzarren, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurri buruzko foru lege proiektuan xedapen bat badago (Parlamentuko tramitean, egun), 5. artikuluan, lanpostu hutsak aukeratzekoan langile hauei lehentasuna emateko txanda irekiko izangaieko.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 14an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, oru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Compañía Tecnológica de Corella-Construcción, S.A. enpresari emaniko laguntzei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. Emandako laguntzak:

A) Industria Sustatzeko Zerbitzuak:

Industria zuzendari nagusiak abenduaren 9an emaniko 1431/1998 Ebazpenaren bidez 351.067.750 pezetako dirulaguntza eman zitzaion

enpresa honi inbertsioa dela-eta, eta 14 milioi pezetako beste dirulaguntza bat 28 lanpostu mugagabe sortzeagatik.

Inbertsioagatiko dirulaguntza bi urtekotan ordaindu zen: lehenbizikoa 300.000.000 pezetakoa, 1998ko ekitaldiaren kargura, eta bigarrena 51.067.750 pezetakoa, 1999ko ekitaldiaren kargura.

Enplegua sortzeagatiko dirulaguntza bi urtekotan ordaindu zen: lehenbizikoa 13.500.000.000 pezetakoa, 1999ko ekitaldiaren kargura, eta bigarrena 500.000 pezetakoa, 2000ko ekitaldiaren kargura.

Enpresak egindako inbertsioek 1.783.275 peze- ta egiten zuten eta egiaz gauzatutakoek eta dirulaguntzaren xede zirenek 1.755.338.754 pezeta.

Hona zertan oinarriturik eman ziren dirulaguntzak:

– Industria politikarako unean uneko neurrien gaineko eta inbertsioa eta enplegua sustatzeko Araua (1982).

– Inbertsiorako eta enplegurako finantza laguntzen erregelamendua (1/1982 Foru Dekretua).

B) Berriztapen eta Teknologi Zerbitzua:

Industria zuzendari nagusiak 2000ko irailaren 5ean emaniko Ebazpenaren bidez 750.000 pezetako dirulaguntza eman zitzaion, kalitatea egiazta-

tzeko proiektu baterako 2.000.000 pezetako aurrekontua aurkeztu ondoren. Laguntza ez zaio oraindik ordaindu, eta Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak kalitatea, diseinua eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzen deialdia onesteko eman zuen martxoaren 16ko 28/2000 Foru Aginduan oinarrituta eman zaio.

2. Dirulaguntzak itzultzeko eskaera:

Ez zaio enpresari horren inguruko eskaerarik egin, laguntzen itzulketa eskatzeko arauetan ezarritzen diren kasuetako bakar batean ere ez baitago.

Bestalde, aplikatzekoa zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen VI. tituluko II. kapituluko 1. sekzioan ezarritakoa. Arauaren aplikazioak ondorioak izateari dagokionez, Tributuei buruzko Lege Orokorren 113. artikuluan ezarritakoarekin bat, tributuen arloko administrazioak bere eginkizunetan eskuratutako datuak isilpekoak dira eta hirugarrenei zenbait kasutan bakarrik jakinarazi ahal zaizkie, horien artean Parlamentuko ikerketa batzordeei laguntza ematekoan, legeak ezarritako esparruaren barrenean, baina ez da kasua.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Industria, Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagaitia Ripoll

Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barre-

na jaunak galdera egin du Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Ekainaren 22ko 204/1998 Foru Dekretuaren bidez, GAO gaietan eskumena duen organoa Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria dela ezarri eta Biodibertsitatearen Foru Batzordea eratu zen, Ingurumen zuzendari nagusia buru duena.

Urtarrilaren 12ko 6/2000 Foru Aginduak Biodibertsitatearen Foru Batzordearen antolaketa eta jardunbiderako arauak ezarri zituen eta idazkari-tza bat sortu zuen.

Horregatik guztiagatik, eta Nekazaritza, Abel-

tzaintza eta Elikadura Departamentuak Batzorde horretan ordezkariak badu ere, eskatzen den informazioa eskuratzeko lehen aipaturako organo eskudunei zuzendu beharra dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro.

NUPEko bioteknologia zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak NUPEko bioteknologia zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du genetikoki aldarazitako organismoekin NUPen egiten ari diren esperimentu eta ikerketei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Batasunako zuzentzaruetan produktu transgenikoen gainean dauden arau sustantiboak Espainiako legerian txertatu dira ekainaren 3ko 15/1994 Legearen bidez eta hura garatzen duen Erregelamendua onetsi zuen ekainaren 20ko 951/1997 Errege Dekretuaren bidez.

Erregelamendu honetan zehazten da zein diren estatuaren eskumenak eta zein autonomia erkidegoenak. Estatuaren arlo honetako eskumenak Ingurumen Ministerioaren esku daude eta Nafarroan, ekainaren 22ko 204/1998 Foru Dekretuaren xedatutakoaren arabera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkio.

Departamentu horretan, beraz, eskatu beharko da aipatzen den informazioa.

Iruñean, 2001ko martxoaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Aurrekontuko “Nafarroako Odol-emaileen Elkartearantzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Nafarroako Odol-emaileen Elkartearantzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal

andreak galdera bat egin du, 2000ko azaroaren 8an, “Nafarroako Odol-emaileen Elkartearantzako diru laguntza” izeneko 18400-0 aurrekontu lerroaren betetzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak 2000. urtean Nafarroako Odol-emaileen Elkarteari emandako dirulaguntza 41.000.000 pezetakoa izan zen. Diru kopuru hori osorik bete eta justifikatu da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 12an

Osasun konteilaria: Santiago Cervera Soto

Liburuzaintzako deialdiak geldiarazi izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak liburuzaintzako deialdiak geldiarazi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera bat egin du liburuzaintzako deialdiak geldiarazi izanari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Gobernuak ez du liburuzaintzako deialdiak “geldiarazi”. Horren froga da berriki onetsi diren

erabakiak: liburutegiko arduradunen oposizioaren ebazpena (2000ko maiatzaren 8ko 56. NAO) eta Nafarroako Liburutegi Nagusiko erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (2001eko urtarrilaren 12ko 6. NAO).

Bestalde, Gobernuak 196/2000 Foru Dekretuaren bidez aldatu zuen Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren plantilla organikoa, liburutegiko arduradun izateko hamar lanpostu huts sortzeko.

2. Nafarroako Liburutegi Nagusia larunbatetan 14:00ak arte egoten da zabalik. Sare publikoaren gainerako liburutegiek ez dute langilerik asteburuan liburutegiko zerbitzua emateko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko martxoaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat istripu izan da lehen aipaturiko bidezkatian 2000n zehar eta 2001en orain arteko tartean?

2000n biktimarik eragin zuten zazpi istripu gertatu ziren. 2001eko urtarrilean, dauzkagun datuen arabera, biktimarik eragin zuen istripu bat gertatu zen.

2.- Nolako larritasunekoa izan da istripu bakoi-tza?

2000. urtea: hildako bat, 4 zauri larriekin, 12 zauri arinekin.

2001. urtea: bi hildako, bat zauri larriekin eta beste bat zauri arinekin.

3.- Eginiko argiketen arabera, istripu horien zergatia zein izan dela uste da?

Poliziaren atestatuetan dauden datuen arabera, honakoak dira istripuen arrazioak:

2000. urtea: 4 istripu aurkako erreian sartze-gatik.

Istripu bat aurreratze bidegabe batengatik.

Istripu bat STOP seinale bat ez betetzeagatik.

Istripu bat bidetik atera eta iraultzeagatik.

2001. urtea: istripu bat aurkako erreian sartu eta talka egiteagatik.

4.- Istripuen ondorioz, errepide horretako seinalizazio kaskarrean oinarrituz Nafarroako Gobernuaren aurkako salaketarik aurkeztu al dute istripua jasan dutenek?

Halakorik ez dago jasota.

5.- Erreiak bereizteko barnealdeko marrak pintura zimurtsuz margotzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Ez dira barnealdeko marrak pintura zimurtsuz margotuko.

Marra etengabea margotuko da goranzko norabidean, zirkulazioa ibilgailu mantsoentzako erraitik eta eskuineko erraitik –eta ez ezkerreko-tik– bideratzeko.

Abiadura orduko 80 kilometrotan ezarriko da portu osorako.

6.- Baiezkoan, margotze-lan horiek noiz egiteko asmoa du?

2001eko apirilean, aurreko atalean azaldutako baldintzetan.

7.- Ezezkoan, zergatik ez zaie margotze-lan horiei ekin nahi?

Marra zimurtsuak beti zirkulatzeko erraia eta bazterbidea bereizteko margotzen dira, hain zuzen ere ibilgailuan doazenei ohartarazteko zirkulazio erraitik kanpora ateratzen ari direla.

Erreiak bereizteko marrak ez dira zimurtsuak izaten aurreratzen ari diren ibilgailuetako gidariak ez ikaratzeko, horrek egoera arriskutsuak sorraraziko lituzkeelako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Zer asmo dauzka Nafarroako Gobernuak gai horretan, eta zein egoeratan dago aipaturiko proiektua?

Nafarroako Gobernuak Ebro gainean, Fustiñana eta Ribaforada artean, beste zubi bat egiteko proiektua gaurkotzen ari da, hormigoia buruzko eta eraikuntzaren arloko segurtasun arau berrietara egokitzeko. Proiektua hurrengo hilabeteetan onetsiko da.

Programatuta dago obra hori 2002ko ekitaldian kontratatu eta 2002 eta 2003. urteetan egitea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Beriain-Getze errepidearen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Beriain-Getze errepidearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Beriain-Getze errepidearen egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Errepide horri dagokionez ezer egiteko asmorik al dago?

Galderan aipatzen den errepidea, NA-2006 errepidea, ez da existitzen. Getzera iristeko errepidea NA-6002 errepidea da, eta 2 kilometro luze da. Noainen hasten da, Ezkirotzeko bidean, 1,200 kilometro puntura arte. Tarte hori 2000n egokitu zen. 6,50 metro zabal da, eta metro bateko bazterbideak dauzka. Puntu horretatik Getzeraino 800 metro daude, batez besteko 4 metroko zabalarekin. Zolaren egoera egokia da.

Ez da ezer egitea aurreikusi, kontserbazioko lan arruntez gainera.

2. Hala bada, zein epetan?

Aurreko galderaren erantzunean adierazi bezala, ez da ezer egitea aurreikusi.

3. Ez badago ezer egiteko asmorik, zergatik?

Lehenbiziko galderaren erantzunean adierazi bezala, gure ustez NA-6002 errepidearen egoera egokia da, bai zoruaren, bai bide segurtasunaren aldetik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190 artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti.

Zenbait errepidetan “toki jakinetako ekintzen” egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zenbait errepidetan “toki jakinetako ekintzen” egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du zenbait errepidetan “toki jakinetako ekintzen” egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Hona istripu ugariko tarteak eta tarte arriskuak zuzentzeko jarduketara ezberdinak betetzeko mailak, eskatu bezala:

N-121, Arrizabalagako eskualdea: Arrizabalagako zeharbideari buruzko proiektua egiten ari da, martxoaren 23ko 235/2000 Foru Aginduari jarraituz.

N-121, El Maño bidegurutzeta: 2000n bukatua.

N-121, Puiuko bidegurutzeta: 2000n bukatua.

N-111, Arrizabalagako errepedeko bidegurutzeta: 2000n bukatua.

NA-115, Faltzesko bidegurutzeta: egiten ari da; 2001eko apirilean bukatuko da.

NA-150, Ubarminerako sarbidea: proiektua onesteko fasean. 2001ean bukatzeko aurreikusia.

N-111, Los Arcosko saihebidetako erreiak: egiten ari da; 2001eko apirilean bukatuko da.

N-121, Barasoingo eskualdea: proiektua bukatuta dago; egiteko dago.

N-121, Untzueko bidegurutzeta: proiektua onestita dago; 2001ean egingen da.

NA-134, Tuterako bidegurutzeta, Ejeantantz: egiten ari da; 2001eko apirilean bukatuko da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

“Errepideei buruzko foru plana, 1998-2005” delakoaren zenbait espedienteren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak “Errepideei buruzko foru plana, 1998-2005” delakoaren zenbait espedienteren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du “Errepideei buruzko foru plana, 1998-2005” delakoaren zenbait espedienteren egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Auritz-Izaba errepiderako 600 milioi pezeta-ko ekarpena aurreikusten zuen errepideei buruzko planak 2000rako. Kontseilariak bere erantzunean jakinarazi digu behin betiko onespina falta zuela proiektuak. Zein egoeratan dago errepide hori hobetzeko espedientea? Zer aurreikuspen dauka Herrilan Departamentuak hasteari dagokionez?

Aipatu proiektuari behin betiko onespina emateko fasean gaude; hura egiteko aurrekontu-baliabideak edukitzeko zain gaude.

2.- Belatan zeharreko Iruña-Frantzia Interes Orokorreko Sarean, Bera-Behobia tartearantz 1000 milioiko ekarpena aurreikusten zen 2000rako. Kontseilariak jakinarazi digu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatzeke dagoen hitzarmen bati loturik dagoela. Zertan dira negoziazio horiek? Aurrerapausoak eman al dira Gipuzkoako Aldundiarekin gai honi irtenbide bat emateko? Zer aurreikuspen dauka Departamentuak obraren hasierari buruz?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak beste batzuetan adierazitakoaren antzeko egoeran dago espedientea.

1997-1998 urteetan, Nafarroako Gobernuak errepide horretarako alternatiba eta konponbideen azterlanaren eguneratze osatu eta zehatza egin

zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari proposatu zion Gipuzkoako lurraldean egin beharreko inbertsioen ehuneko 50 ordaintzea administrazio bakoitzak, baina errepide horren titularitatea Nafarroarena izaten jarraitzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak baldintza bat jarri zuen: behin jarduketak egin ondoren, Nafarroak errepide tarte hori Gipuzkoari ematea. Jarrera hori ez da aldatu, eta, horrenbestez, ez dugu aurrera egin ahal izan ez proiektuaren geroko faseetan, ez lanak egiteko ere.

3.- Eskualdeko sarean, Azkoi-en-Rincón del Soto errepiderako 2000n 300 milioiko ekarpena egitea aurreikusten zuen errepide planak. Kontseilariak erantzun du proiektua eta obra egiteke daudela. Zer aurreikuspen dauka Herrilan Departamentuak obra hori egiteari buruz?

Azkoi-en-Rincón de Soto errepideko obrak, Errepide Planak aurreikusitakoak, geroko utzi behar izan dira, aurrekontu-arazoak direla medio.

4.- Ezkabako tunelerako, errepide planak 500 milioi aurreikusten zituen 2000rako, eta kontseilariak erantzun du eraikuntza-proiektua amaierako fasean dagoela. Obra hori hasteari buruzko zer aurreikuspen dauka Herrilan Departamentuak?

Ezkabako tunela egiteko proiektua bukatu eta onspen teknikoa emateko zain dago. 2002an kontratatzea aurreikusi da.

Errepide Planean aurreikusitako hasiera gerotzeko arrazoiak era askotakoak eta justifikatuak dira:

Lehenbizi, tunel bikoitza egitea proiektatu da, ez tunel bakarra, Errepide Planean aurreikusi bezala; izan ere, trafikoari buruzko azterlan xehe eta eguneratuak egin ondoren, egiaztatu ahal izan dugu hasieratik zirkulazioa hartzeko gaitasun gehiago behar duela tunelak.

Bestalde, diseinuan, eraikuntzan eta segurtasun kontuetan irizpide berrien eta aurreratuenak erabili ditugu; horrek berekin ekarri du zenbait erakunderekin kontsultak egiteko prozesu luze bat.

Eta, azkenik, aurreko arrazoiak direla medio Errepide Planean aurreikusitakoa baino aurrekontu handiagoko proiektua denez, Parlamentuak Errepide Plana aurrera eramateko urtero onesten dituen aurrekontuen arabera jokatu behar izan dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti.

N-1 errepidean gertatzen diren istripuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak N-1 errepidean gertatzen diren istripuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du N-1 errepidean gertatzen diren istripuei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer datu dauzka Departamentu horrek N-1eko zati horretan izandako istripu-kopuruari eta horien ezaugarriei buruz?

Autobia bilakatzeko lanetan dagoen N-1 errepideko 395 eta 402 kilometro puntuen artean, biktimarik sortutako ondoko istripuak gertatu dira:

2000n: 6 istripu, 4 hildako, 9 zauritu larri eta 2 zauritu arin eragin dituztenak.

2001ean: istripu bat, hildako bat eta zauritu larri bat eragin duena.

Poliziaren atestatuaren arabera, honakoak izan ziren 2000ko istripuen arrazoiak:

3: aurkako erreian sartu eta ibilgailu batekin talka egitea.

1: aurkako erreian sartu eta medianaren kontra jotzea.

1: irauli eta aurkako norabideko ibilgailu batekin talka egitea.

1: bidegabeko aurreratze baten ondorioz.

2.- Aurten gertaturiko istripuei dagokienez, zeintzuk izan dira kausak, Departamentuaren iritziz, kasu bakoitzean?

Poliziaren atestatuaren arabera, 2001eko istripuaren arrazoi lehentasunak ez errespetatzea izan zen.

3.- Arazo larri horiek konpontzeko inolako ekin-tzarik egiteko asmorik al dago?

Errepide tartearen eguneko batez besteko intentsitatea 12.964 ibilgailu/egun da. Horietatik % 41,3 ibilgailu astunak dira. Une hauetan, ongi dakizun bezala, aurreikusita egon baino egiten ari den lana da Altsasu eta Gipuzkoa arteko N-1 errepidea autobide bilakatzekoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Lizarrako saihebidetan izaten diren istripuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Lizarrako saihebidetan izaten diren istripuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Lizarrako saihebidetan izaten diren istripuei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer datu dauzka departamentu horrek Iruña-Logroño errepideko tarte horretan gertatzen diren istripuei eta euren ezaugarriei buruz?

Poliziaren atestatuak agertzen dutenez, 2000n zehar biktimak eragin zituzten lau istripu gertatu ziren, eta, haien ondorioz, 2 hildako zauritu larri bat eta 5 arinki zauritu izan ziren, guztiak N-111 errepidean, Lizarrako saihebidetaren zatian. Istripu horietako hiruren zergatia kontrako erreian sartu eta ibilgailu batekin talka egitea izan zen,

eta, laugarrenarena, bidetik ezkerreko aldetik ateratzea.

2001eko urtarrilaren 30era arte (une horretara artekoak baitira eskueran dauzkagun datuak) bi istripu biktimadun gertatu dira, eta, haien ondorioz, pertsona bat hilik eta beste bat zauriturik gertatu dira, NA-132 errepideak Lizarrako saihebidetarekin duen lotunean dagoen biribilgunean. Poliziaren atestatuaren arabera, bi istripu horiek gertatu ziren Tafalla-Lizarra norabidean joatean biribilgunean gehiegizko abiaduraz sartzeagatik.

2.- 2001ean gertaturikoei dagokienez, kasu bakoitzean arrazoiak zein izan direla uste du departamentuak?

Foruzaingoaren atestatuaren arabera, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko 45. artikuluko araua gehiegizko abiaduraz joateagatik haustea izan da, bi kasuetan.

3.- Arazo larri horiek konpontzeko inolako ekin-tzarik egiteko asmorik ba al daukate?

Biribilguneen sarreran abiadura mugatzeko banda zimurtsuak ezarriko dira. Halaber, babes-hesi malguaren orde zurruna jarriko da, ibilgailuak erortzea saihesteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 20ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Izan al dira Nafarroako Gobernuak teknikiariak gaur egungo igerilekuaren instalazioak ikusten, eta horien egokitasunari buruz behar diren txostenak eman al dituzte? Baiezkoan, zer adierazi dute teknikariek?

Kirol-instalazioetan inbertsioak egiteko diru laguntzen deialdia egiten denean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, ez du aurreikusten teknikaririk joaterik diruz lagundu dakien aurkezten diren instalazioetara obrak esleitu aurretik. Beranduago ere, obraren exekuzio partzialak eta haren amaiera behatzeko joaten dira, kasuan kasuko ziurtagiriaren ordainketarako irizpena emateko.

Osasun Departamentuko osasun publikoko teknikariak, udako sasoa hasi aurretik, igerileku eta aldagelekin zerikusia daukaten kirol-azpiegiturara joan ohi dira, eta aurkituriko akatsak zein

diren edo azpiegitura horiek araudia betetzen ote duten garaiz jakinarazten diote toki erakunde bakoitzari.

Toki erakundeak behartuta daude instalazio horiek araudiari egokitzera, osasun publikoko teknikariek adierazitako oharrei jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, diru laguntzak eman ditu, 2000/2003 eperako Foru Komunitateko kirol instalazioei buruzko plan zuzentzaileak ezarritako xedeen arabera jokatuz.

Igerilekuetako instalazioetan inbertsioak egiteko esleitu diren diru laguntzak ordaintzeko, eskatzen da toki erakundeek arau tekniko eta osasunekoak ezartzen dituen Foru Dekretuak eta Osasun Publikoaren Institutuko Osasunaren Babeserako Atalak eginiko txostenak ezarritakoa bete dezaten.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Pentsuek dituzten produktu transgenikoei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak pentsuek dituzten produktu transgenikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du pentsuek dituzten produktu transgenikoei buruz. Hona Nekazaritza,

Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Kontseiluak 1990eko apirilaren 23an emandako zuzentarauak (90/220/CEE) merkatuan genetikoki aldarazitako organismoak dituzten produktuak sartzeko baimena emateko Europako Erkidegoaren prozedura ezartzen du. Prozedura horri jarraikiz, estatu kide batek baimena eman duenean, produktu hori ezin izanen da debekatu, murriztu edo eragotzi, baimenean ezarritako baldintzak errespetatzen badira.

Espainiako ordenamendu juridikoak zuzentarau horiek bereganatu ditu, ekainaren 3ko 15/1994 Legearen eta ekainaren 20ko 951/1997 Errege Dekretuaren bitartez. Arau horiei jarraikiz, Monsanto Europe enpresaren genetikoki aldarazitako soja-haziak merkaturatzea baimendu zuen Erresuma Batuak, Batzordeak 1996ko apirilaren 3an harturiko Erabakiaren bidez. Halaber, Frantziako agintariek Ciba-Geigyren genetikoki aldar-

zitako artoa merkaturatzea baimendu zuten (97798 CE).

Kontseiluak maiatzaren 26an emandako 1139/98 Erregelamenduak (CE) genetikoki aldarazitako osagaiak dauzkaten kontsumorako produktuen etiketetan horri buruzko aipamena egitera behartzen du. Erregelamendu hori Batzordeak urtarrilaren 10ean emandako 49/2000 Erregelamenduak (CE) aldatu zuen, genetikoki aldarazitako osagaia guztiaren % 2 baino kantitate txikiagoan daukaten produktuak etiketako aipamen hori egin beharretik salbuesteko.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kalitate ikuskatzaileek pentsu-fabrike-

tan egiten dituzten aldizkako kontroletan (horietan, etiketak ez ezik, jatorria eta lehengaien emate-agiriak ere aztertzen dira) ez da pentsu transgenikorik atzeman. Dena den, baimenduriko produktuetan horrelakorik aurkituko balitz, produktu horiek ez lirateke ez geraraziko ezta zehatuko ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 16an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak izanen lukeen kostuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak izanen lukeen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin zuen, martxoaren 5ean, osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak izanen lukeen kostuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Kostuari dagokiona oraindik itxi gabeko gai bat da, zenbait faktoreren arabera baina, hala nola:

- Aparatu-modeloa.
- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarekin batera egitea kontratazioa.
- Konpartituriko base bakarra (hangarrak, mekanikariak eta abar).
- Erabilera-orduen kopurua.

Edozein kasutan, kalkula daiteke osoki medikalizaturiko aparatu bat, pilotu baten presentzia fisikoa, berehala irteteko moduan egotea, 300-400 hegaldi-ordu eta ikuskapen- edo matxura-uneetan beste aparatu batek ordeztzea ordaintzeko urtean 100-170 milioi pezeta behar izanen direla.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak ekarriko lukeen plantilla handitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak ekarriko lukeen plantilla handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak galdera egin zuen, martxoaren 5ean, osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteak ekarriko lukeen plantilla handitzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Baliabide hori ezartzeak ez du Osasunbidean inolako plantilla-handitzerik ekarriko. Esan den bezala, Iruñeko zainketa berezien unitate mugikorretako bateko medikua eta erizaina arduratuko dira horretaz: gertakariaren ezaugarrien arabera, larrialdi-ibilgailua aldatu besterik ez dute egiten.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Helikoptero medikalizatu bat ordaintzeko kontusailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak helikoptero medikalizatu bat ordaintzeko kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak galdera egin du helikoptero medikalizatu bat ordaintzeko kontusailari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Kontratazioaren kostu zehatzari buruzko azterlan teknikoa bukatzen ez den bitartean, ezin da finkatu gastua zein kontusailari aplikatuko zaion.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteko beharrezko diren langileei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteko beharrezko diren langileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun larrialdiei helikoptero medikalizatu batez aurre egiteko beharrezko diren langileei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Iruñean, anbulantzia medikalizatuarentariko bi egoitza daude, sendagile eta erizain bana fisikoki presente dituztenak; bi anbulantzia medikalizatuekin (ZBU mugikorrek) egiten diete aurre gertatzen diren larrialdiei: General Solchagan dagoen A-199 eta Aralar kaleko suhiltzaileen parkean dagoen B-161 anbulantziak dira.

Helikopteroan bi egoitza horietako bateko sendagilea eta erizaina joanen dira. Izan ere, diseinatutako protokoloak dio egunsentitik iluntzera arte ekipo sanitarioa helikopteroz aterako dela trafikotatik istripuetara eta larrialdi larrietara, lur gaineko 15 minutuko iskrontik aurrera. Gaez, distantzia txikiagoetan edo Iruñean gertatzen diren larrialdiatarako ZBU mugikorrean aterako da ekipo sanitarioa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

Larrialdi-sistemaren zerbitzuko helikoptero medikalizatuaren egoitzaren kokalekuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak larrialdi-sistemaren zerbitzuko helikoptero medikalizatuaren egoitzaren kokalekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Larrialdi-sistemaren zerbitzuko helikoptero medikalizatuaren egoitzaren kokalekuari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nagusiki, ekipo sanitarioa eta bi ibilgailuak (ZBU mugikorra eta helikopteroa) Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak, Justizia eta Barne

Departamentuak Iruña inguruetan eraiki nahi duen helikopteroetarako basean egonen dira.

Litekeena denez helikopteroa obra hori bukatu baino lehenago edukitzea, base hori jartzeko balizko kokapenak aztertzen ari gara.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak lur hartzeko izanen dituen tokiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak lur hartzeko izanen dituen tokiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak lur hartzeko izanen dituen tokiei buruz. Hona Herri-

lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Komunitateko ospitaleetan horretarako prestatuturiko lekuak daude (lurrean Nafarroako Ospitalean eta Reina Sofia Ospitalean eta eraikinaren sabaian García Orcoyen Ospitalean).

Datak konfirmatzen direnean, harremanetan hasiko gara herriekin, udalek helikopteroek lur hartzeko leku bat presta dezaten. Gehienez ere 20 metroko diametroa duen espazio zirkular bat behar da, kablerik eta bestelako oztoporik gabekoa, eta gainerako denboran beste edozein gauzatarako erabil daiteke. Leku hori behar bezala eman behar da ezagutzera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak jardunen dueneko oinarritzko osasun eskualdeei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak jardunen dueneko oinarritzko osasun eskualdeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun larrialdiei aurre egiteko helikoptero medikalizatuak jardunen dueneko oinarrizko osasun eskualdeei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Helikoptero medikalizatuak Nafarroa osoan jardun ahal izanen du, Iruñeko, Tuterako eta Lizarra-

ko hiriguneetan izan ezik, distantziarengatik eta ZBU mugikorrek daudelako; izan ere, lehenbizi ZBU mugikorra erabili beharko da, normalean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Etxebizitzak zaharberritzearen arloko arauak aldatzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Etxebizitzak zaharberritzearen arloko arauak aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 5eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du etxebizitzak zaharberritzearen arloko arauak aldatzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, araudiak egiteko duen ahalmena erabiliz, Parlamentuaren erabaki hori zela eta, irailaren 30eko 350/2000 Foru Dekretua onetsi zuen.

Foru Dekretuaren zioen azalpenean, ondokoa esaten da:

“...elbarrituenganako sentiberatasunaren adierazgarri gisa eta Nafarroako Parlamentuak zentzu honetan hartutako erabakien ildotik, oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako zaharberritze lanetarako laguntzak handitzea xedatzen da: aurrekontu babesgarriaren portzentajea % 45eraino igotzen da, etxebizitza-erakinetako auzo-jabetzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko arauetara osoki egokitzea lortzen duten obretarako dirula-

guntzetan. Diruz lagunduko da, lehenbizikoz, lokalen edo etxebizitza-parteen azalera eskuratzeari, igogailuak paratzeko edo oztopo arkitektonikoak kentzeko beharrezkoa baldin bada, eta hori gertatzen da, hain zuzen ere, eskailera-zuloek edo ezkaratzek oztopoak kentzea zailtzen edo ezinezko egiten dutenean.”

350/2000 Foru Dekretuaren artikuluek etxebizitzak zaharberritzeko jarduketak sustatzeko zerbait neurri dakartzate; horietatik, Parlamentuaren erabakiarekin hobekien ezkontzen dena irailaren 28ko 287/1988 Foru Dekretuko 67. artikuluko 5. idatz-zatiari ematen dion testua da:

“5. Igogailuak paratzeko edo etxebizitza-erakinetako oztopo arkitektonikoak kentzeko lokalen edo etxebizitzaren azalera eskuratzen direnean, emendiozko dirulaguntza bat emanen da, gehieneko mugatutako honako hauetako txikiena izanen duena:

– Igogailua paratzeko edo oztopoak kentzeko obrarako ezinbestekoak diren azalaren erosketaprezioaren % 45.

– Igogailua paratzeko edo oztopoak kentzeko obrarako ezinbestekoak diren metro karratuak bider modulu ponderatuaren % 80.”

Horrekin etxebizitzetako eraikinen sarrera-irteerak erraztu nahi dira. Arau horren aplikazioak ezarritako neurrien zuzentasuna berretsiko duela koan gaude.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamendua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 21ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 5eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Bi tramite administratibo falta dira, Inabonos enpresaren eskumeneoak diren obrak egiteko materialez gainera:

1) Udalez gaindiko eraginari buruzko planak, 2000ko martxoaren 12ko Foru Dekretuaz onetsitakoak, ukituriko ondasun eta eskubideak okupatzeko prozesua.

2) Obrak egiteko udal lizentzia ematea.

2. Inabonos enpresaren jardueraren ondorioz mende hasieratik 1990. urtera arte sortu eta leku horretako alubioi lurren akuiferoa kutsatu duten piritazko errautsez zikinduriko lurra biltontzi estanko batean sartzea.

Alderdi tekniko eta ingurumenekoak, baldintza hidrogeologiko aldekoak, kutsaturiko lurren koka-penetik hurbilago egotea eta amaierako paisaiaren oneratzea gauzatzeko baldintza topografiko hobeak izan dira El Viso eskualdearen alternatiba aztertutako bederatzietatik onena gertatzeko arrazoiak.

3. Jendaurreko informazio prozesuan, Errioxako Gobernuak Turismo eta Ingurumen Kontseilari-

tzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiak Alcanadre, Pradejón eta Rincón del Sotoko udalek eta Errioxako Gobernuak Herrilan, Garraio, Hirigintza eta Etxebizitza kontseilariak alegazioak aurkeztu zituzten. Udalez gaindiko eraginari buruzko plana onesteko irailaren zortziko gobernu erabakiaz erantzun zitzaion; erantzun hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta alegazioegile bakoitzari igorri zitzaion gero.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak, uztailaren 28ko gutun batez, Errioxako Gobernuak lehendakariordeari, Ingurumen kontseilariari eta Alcanadre, Pradejón eta Rincón del Sotoko alkateei zuzendu zitzaion. Proiektuari buruzko zenbait azalpen eman eta nahi zuten informazio gehigarri guztia emateko prest azaldu zen. Enpresak Alcanadrek herriari eman zion informazioa.

4. Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlan proiektuak ekar ditzakeen ondorioak aztertu eta behar diren neurri zuzentzaileak ezarri zituen; horietako batzuk ingurumen zaintzako programari gehitu zaizkio, bai indusketa egin eta biltontzia egokitzeko faserako, bai garraio eta betetze faserako eta biltontzia itxi eta zigilatze faserako ere.

Neurri horiek ikusita, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko deklarazioak proiektua ingurumenaren aldetik bideragarria dela jo du.

Erreferentzia gisa jar daiteke Iruñeko Santa Luziako biltontzia eraikitzearen ez dela eraginik gertatu; hura ere Inabonos SA enpresak sustatu zuen, hiri horretako fabrika antzeko arazo bat izan zelako, eta 2000n bukatu zen.

5. 1999ko maiatzaren bostean, Lodosako alkateak azterlan eta proiektuak egiteko baimena eman zuen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 20an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Nekazaritzako aseguru konbinatuei emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak nekazaritzako aseguru konbinatuei emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 12ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres galdera egin du nekazaritzako aseguru konbinatuei emaniko dirulaguntzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Ondokoa da nekazaritzako aseguruak diruz laguntzeko kontusailaren bilakaera:

1996. urtea: 200.000.000 pezeta.

1997. urtea: 400.000.000 pezeta.

1998. urtea: 443.000.000 pezeta.

1999. urtea: 443.000.000 pezeta.

2000. urtea: 480.000.000 pezeta.

2001. urtea: 480.000.000 pezeta.

Kontusailaren banaketa urtero aplikatzen zaio aseguruari buruzko lerro bakoitzari, ondokoen araber:

a) Nafarroako Nekazaritza Aseguruetarako Planari buruzko erabakia aplikatzea. Delako erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsi zuen 1991ko otsailaren 20an; haren bitartez, Nafarroako Gobernuak, ENESAren ekarpenaren arabera, nekazaritzako aseguruetarako ordaindu beharrekoa ezartzen du.

b) Aurreikuspenak, aseguru-lerro berriak sartzeari begira.

c) Europar Batasunak ezarritako arauak; haien arabera, gehienez ere aseguru kostuaren % 50 lagundu behar da.

d) Nekazariari mozkin gehien ematen dizkioten laboreetarako dirulaguntza txikiagoa ematea.

Irizpide horiekin, artoa aseguratzeko kostuak % 3,6 egingen du gora (2,304 pezeta gehiago aseguratutako 100 pezeta bakoitzeko); % 0,4 igoko da baratze-produktuen asegura (0,192 pezeta 100 pezeta bakoitzeko); azkenik, 16,10 igoko da fruten asegurua (4,32 pezeta gehiago 100 pezeta bakoitzeko).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 19an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Soldadutzaren ordezko zerbitzurako eskainitako postuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak soldadutzaren ordezko zerbitzurako eskainitako postuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du soldadutzaren ordezko zerbitzurako eskainitako postuei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Justizia Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak soldadutzaren ordezko zerbitzuari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatu zutenetik zenbat postu eskaini dira?

Gizarte laguntza emateko 200 postu.

2.- Zer jarduera egin dira eta egiten ari dira gaur egun soldadutzaren ordezko zerbitzuan dihardutenak? Adieraz bedi jarduera bakoitza, zerbitzua eman den zentroa eta kasu bakoitzean betetako eginkizuna zehaztuz.

Ingurumena: kasuan kasuko basozainari lagundu eta harekin lan egitea. 87 postu.

Hezkuntza: eskolako jantokiko, patioko eta jolas-garaietako irakasle arduradunari lagundu eta harekin lan egitea. Minusbaliotasunen bat daukatenei laguntzea. 55 postu.

Gizarte Ongizatea: egoitzetako pertsona adin-
duei laguntzea. 15 plaza.

Kirola: minusbaliatuei laguntzea kirol instalazioetan. 5 postu.

Gazteria: Fuerte del Príncipe gazteentzako egoitzako ikasleei ikasten laguntzea. 8 postu.

Kultura: bisitariei informazioa emateko langileei laguntzea. 5 postu.

Babes zibila: materialaz arduratzen diren langileei laguntzea. 25 postu.

3.- Zein lan-egoeratan zeuden zerbitzuan zihardutenak, zerbitzua betetzen hasi ziren unean? Zehatz bedi kasu bakoitza.

Ordezko zerbitzuan aritzearekin bateragarria zen egoeran.

4.- Zein lan-egoeratan daude aurten soldadutzaren ordezko zerbitzua egin dezatela eskatu zaien pertsonak?

Ordezko zerbitzuan aritzearekin bateragarria zen egoeran.

5.- Kontzientzia-eragozlerik erabili al da plantillako postuetarako edo soldadutzaren ordezko zerbitzua egiten ari direneko zentroetako langileak ordezteko?

Ez.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko martxoaren 23an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Golf zelaiak eraikitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak golf zelaiak eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du golf zelaiak eraikitzeari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, jakinarazi nahi genuke turismorako azpiegitura gisa golf-zelai publikoak eraikitzekeo ekimena Nafarroako udal batzuetan hasi zela. Udal horiek horri buruz dugun iritzia buruzko kontsulta egin ziguten. Gure ustez, azpiegitura hori eraikitzea oso ekimen ona da, hala turismoaren ikuspegitik nola tokian tokiko kirolgintzarenetik.

Produktua bera ezagutzen ez genuenez gero, Espainiako Udal eta Probintzien Federaziora eta Espainiako Golf Federaziora jo genuen, eta jarraian, Nafarroako toki erakundeei informazioa eskuratzeko xedez, informazio-jardunaldi bat antolatu genuen, zenbait hizlarik Nafarroako udal guztiei azal diezaieten golf publikoak herriaren garapenean dituen eraginak zein diren.

Gonbita Nafarroako udal guztiei luzatu zitzaizkien, eta 60 udal inguru bertaratu ziren.

Aipaturiko jardunaldian honako hauek esku hartu zuten:

– Miguel Ángel Bonet jauna.

Espainiako Udal eta Kontzejuen Federazioko Toki Garapenerako Ataleko zuzendaria.

Hitzaldia: Golfa eta Espainian toki-garapenerako aukerei begira duen eragina.

– Antonio Mijares jauna.

Llanes Club Udal Golf Zelaiko lehendakaria.

Hitzaldia: bere esperientziari buruzko diziplinarteko azalpena.

– Jorge Hernández jauna.

Llanes Club Udal Golf Zelaiko kudeatzailea.

– Manuel García Ferrando jauna.

Valentziako Unibertsitateko Soziologiako Kate-draduna.

Hitzaldia: Golfa: ikusmolde dinamiko bat men-dez aldatzean.

– Julián Zulueta jauna.

Espainiako Golf Errege Federazioko lehendakaria.

Hitzaldia: Inbertsioak eta mantentzea.

Aurrekoaren osagarri modura, txango bat antolatu zen, interesa zuten udal guztientzat, bi zelai publikotara joateko: bata, Izkin (Arabán) eta beste Lagránen. Txango horretan kudeatzaileak eta greenkeeperrak azalpenak eman zituzten golf zelai baten esanahiari buruz, nola ustiatzen den, nola mantentzen den eta abar. Horrez gain, produktua bera in situ ikusteko aukera izan zen, bi instalazioak bisitatu baitziren.

Une honetan ez dakigu zenbat zelai eraikiko diren. Dena den, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak golf publikoei laguntzeko irizpideak honako hauek dira:

– Zelai publikoa izatea (9tik 18 zulora bitartean).

– Udalak lursail behar bezain handia jar dezala, ekarpen gisa (40-50 Ha).

– Ureztapenerako behar bezain ur edukitzea.

– Udala prest egon dadila gutxienez ere inbertsioaren % 50 egiteko.

– Udalak bideragarritasun-azterlan bat presta dezala; izan ere, ustiapenak mantentze-gastuak autofinantzatu behar ditu.

– Zelai-mota popularra izatea, eta lurzoruan ez dadila esku-hartze handirik egin. Gehieneko inbertsioa bederatzi zulo bakoitzeko 130 milioi pezetakoa izatea.

– Eskualdean turismo-azpiegituraren bat egonez gero (hala nola hotela, kanpina, landa-etxea eta abar), horrek bereganatzea golf zelaiaren

administrazioa. Halakorik ez badago, gomendagarria litzateke 12-15 gelako hotel txiki bat eraikitzea, klubaren etxe gisa jarduteko eta zelaiarekin sinergiak lortzeko. Bi kasu horietan, helburua ustiapen-gastuak minimizatzea eta turismo-eskaintza berri bat sortzea da.

Aurrekontu-euskarriari dagokionez, Turismo Zerbitzuan badugu, 2001erako aurrekontuetan, "Toki erakundeetarako transferentziak hitzarmenen bidez" izeneko lerroa, zeinak 300 milioi pezetako zuzkidura baitauka, eta, dituzten berezitasunengatik, horrelako proiektuak lerro horretan sartu ahalko liriteke. Une honetan abian diren ekimeak ikusirik, bizpahiru golf-zelai eraikiko direla jotzen dugu, eta, beraz, Departamentuaren laguntza, produktu horretarako, 150 eta 170 milioi bitartekoa litzateke, datozen hiru urteetan zehar.

Horretarako, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, Foru Agindu bidez, produktu horretarako diru laguntzak emateko araubidea ezartzen duten oinarriak zehaztuko ditu.

Oinarri horiek xedatuko dute ezen, diru laguntza esleitu aurretik, Toki Administrazioiko Departamentuari txosten lotesle bat eskatuko zaiola, toki erakundeak instalazioaren ondoriozko betebeharrei aurre egiteko daukan ahalmenari buruzkoa.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Abelbideei buruzko Foru Legea betetzearen gaineko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak abelbideei buruzko Foru Legea betetzearen gaineko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 12ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Nafarroako abelbideei buruzko Foru Legea betetzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.-

- Giza baliabideak: lanaldi partzalean diharduen teknikari bat (B mailakoa), Nekazaritza Ingeiniari Tekniko titulazioa duena.

- Baliabide ekonomikoak: Urtean 28.000.000 pezetako aurrekontu-zuzkidura.

2.-

1.- Abelbideen azterketan laguntza teknikoa ematea, ingurumenaren ikuspegitik egokitzapenak egiteko eta trazadurak leheneratzeko jardueretarako.

2.- Lan topografikoak: puntu adierazgarrien zuinketa eta ziriztaketa.

3.- Egokitzapen eta baso-berritze lineala.

4.- Ingurumenaren ikuspegitik zaintzea eta hobetzea.

5.- Atsedeen guneak, iturriak, baltsak eta uraskak eraikitzea.

6.- Altxonbideak egokitu eta seinalizatzea, saskara hautatua kenduz, oin zahar-ihartuak erauziz, alanbre-hesiak kenduz eta karkabak babestuz.

7.- Inausketak eta oinberritzeak.

8.- Altxonbideak sistematikoki mantendu eta zaintzea, senderismoa egiteko.

9.- Mapagintzako mugaketa egin eta mugariak birkokatzea.

10.- Altxonbideen Tailer Eskolarekin lankidetzan aritzea. Iruñeko Udalak, Estatuak eta Nafarroako Gobernuak finantzatu dute lankidetzaren hori.

11.- Azpiegituretarako obren eraginei buruzko azterlana: autobiak, gas-hodiak, ur-garraiobideak, linea elektrikoak eta abar.

12.- Erakunde publiko eta pribatuei, turismo-partzuergoei, udalei eta kontzejuei aholkuak ematea.

13.- Katastroko mapetan atzemandako okerrak zuzentzea.

14.- Arau subsidiarioak aldatzeko izapideetan, dokumentazio teknikoa berrikustea, interesekoak diren ibilbideei dagokienez.

15.- Abelbideei dagokienez beste departamentuek eginiko ekintzak berrikustea.

16.- Zabalkunde-jardueren sustapenean parte hartzea. Jardunaldiak, azokak, erakusketak, argitalpenak.

17.- Abelbideak errespetatzeko sentsibilizazio-kanpainak.

18.- Azpiegituretarako obren eraginei buruzko azterlana industrialdeei dagokienez.

19.- Abelbideen gaur egungo egoera sistematikoki egiaztatzea lekuan bertan.

20.- Abelbideei buruzko espedienteak izapidatzea. Pasatzeko baimenak eta aldi baterako okupazioak.

3.

Nafarroako abelbideen mantentze-egoeraren bilakaerari dagokionez, esan daiteke Departamentu honentzat guztiz gogobetegarria izan dela foru legea onetsi zenetik igaro diren hiru ekitaldi ekonomikoetan, eskueran izan diren baliabideen ikuspegitik.

Egindako hobekuntzak nabarmenak dira, eta ekintzak jarraian zerrendatzen diren errege-altxonbideetan gauzatu dira:

Erronkarikoen Errege Altxonbidea, Milagrotik Aezkoarako Errege Altxonbidea, Murillo el Frutotik Zaraitzurako Errege Altxonbidea, Taustetik Urbasa-Andiarako Errege Altxonbidea, Probintzietako Errege Altxonbidea, Orba ibarretik Andiarako Errege Altxonbidea. Bestalde, zeharbide, pasabide eta adar multzo kontaezin batean egin dira jarduerak.

4.- Inolako arau-hausteren ondoriozko zehapen-espedienterik ez da ireki.

5.- Nafarroako Gobernuak Nafarroako abelbideen mantentze-egoerari buruz behar adinako ezagutza orokorra dauka. Departamentu honek egiten dituen ekintzak Mendi Atalak —horrek baitauzka esleituak abelbide-arloko eginkizunak— urtero proposatzen duen ekintza-planean sartuta daude, eta osagarriak dira berariaz Oihan Planak eta Biodibertsitatea Zaintzeko Plan Estrategikoak xedatzen dituztenekiko. Guztiz integratuta gelditzen dira Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ekintza-multzo osoan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Arrantzaleen elkarteek eginiko kudeaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Milagros Rubio Salvatierra andreak arrantzaleen elkarteek eginiko kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du arrantzaleen elkarteek eginiko kudeaketari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Arrantza barrutiak administratzen dituzten arrantzale-elkarteek eginiko jardueren berri haiek aurkezturiko oroit-idazkietan ematen da. Oroit-idazki horiek Parlamentura igorri ziren 2000ko urriaren 6an, eta honako hauek dira:

1994

– Zudairi, Murieta, Los Llanos eta Arintzanoko arrantza barrutietako kudeaketari buruzko oroit-idazkia. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

1995

– 1995eko kudeaketako oroit-idazkia, Arga ibaiko arrantza barruti intentsiboa, Eugiko arrantza barruti arrunta eta Eugi-Arga ibaiko hil gabeko arrantzako barrutia. Arga Ibaiko Kirol Arrantzaleak.

1996

– Ega ibaiko karramarro-arrantzako barrutiak. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Karramarro seinaledunaren Azedoko eta Antzingo arrantza barrutietako aprobetxamendu-kudeaketako oroit-idazkia, 1996koa. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Karramarro seinaledunaren Arakil ibaiko barrutiari buruzko oroit-idazkia. Iruñeko Ehiztari eta Arrantzaleen elkarte.

– Erronkari barrutia – 96ko sasoia. Kirol-balantzea. Nafarroako AEMS. Toki Batzordea.

– Erronkari barrutia – 96ko sasoia. Balantze ekonomikoa. Nafarroako AEMS. Toki Batzordea.

– Aragoi ibaiko (Esako) amuarrain barruti intentsiboari buruzko oroit-idazkia. Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– 1996ko kudeaketako oroit-idazkia, Arga ibaiko arrantza intentsiboko barrutia, Eugiko arrantza barruti arrunta, Eugi-Arga ibaiko hil gabeko arrantzako barrutia. Arga ibaiko Kirol Arrantzaleak.

– Zudairiko barruti normaleko eta hil gabeko arrantzako barrutiko eta Murieta eta Arintzanoko barrutietako kudeaketari buruzko oroit-idazkia, 1996. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

1997

– Arakil ibaiko karramarro seinaledunaren barrutiari buruzko oroit-idazkia. Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Azedo eta Murietako karramarro seinaledunaren arrantza barrutien aprobetxamendu-kudeaketari buruzko oroit-idazkia, 1997ko denboraldia. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Amuarraina arrantzatzeko Zudairiko barruti normal eta hil gabeko arrantzakoaren, Murietakoaren eta Arintzanokoaren kudeaketari buruzko oroit-idazkia, 1997ko denboraldia. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Aragoi ibaiko (Esako) amuarrain-barruti intentsiboari buruzko oroit-idazkia. Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Arga ibaiko arrantza-barruti intentsiboko, Eugiko arrantza barruti arrunteko eta Arga ibaiko hil gabeko arrantzako barrutian 1997an egindako kudeaketari buruzko oroit-idazkia. Arga ibaiko Kirol Arrantzaleak.

1998

– Arakil ibaiko karramarro seinaledunaren barrutiari buruzko oroit-idazkia. Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Azedo eta Murietako karramarro seinaleduna arrantzatzeko barrutien aprobetxamendunaren kudeaketari buruzko oroit-idazkia, 1998ko denboraldia. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Amuarraina arrantzatzeko honako barruti hauen kudeaketari buruzko oroit-idazkia: Zudairiko normala, Zudairiko hil gabeko arrantzakoa, Murietakoa, Murietako hil gabeko arrantzakoa eta Arintzanokoa, 1998ko denboraldia. Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Aragoi ibaiko (Esako) amuarrain barruti intentsiboari buruzko oroit-idazkia. Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– Aribeko barrutiko zati arruntari eta hil gabeko arrantzako zatiari buruzko oroit-idazkia, Arga ibaia. Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte.

– 1998ko kudeaketari buruzko oroit-idazkia, Arga ibaiko arrantza intentsiboko barrutia, Eugiko arrantza barruti arrunta eta Arga ibaiko hil gabeko arrantzako barrutia. Arga ibaiko Kirol Arrantzaleak.

– Erronkariko barrutiari buruzko balantzea, 1998ko denboraldia. AEMS Navarra, Toki Batzordea.

Ez ziren igorri Aribeko barrutiari buruzko oroit-idazkia (1997koa), ez eta Erronkarikoari buruzkoak (1994, 1995 eta 1997koak) ere, ez baitzeuden zerbitzu honetako artxiboetan, eta Aribeko barrutia administratzen duen arrantzale-elkartek (Nafarroako Euli-arrantzako Elkarteak) 1997an haiek aurkeztu izana jasota ageri ez zegoelako. Gauza bera esan behar da Erronkariko barrutia 1994an administratzen zuen arrantzale-elkarteari (Asociación Española de Mosca y Salmónidos, AEMS) buruz eta Erronkarikoari buruz 1995 eta

1997an (AEMS elkarte eta Erronkariko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Txixarena elkarte).

2.- Kontuan hartu behar da arrantza barrutien kudeaketak ez diola Ingurumen Departamentuari inolako diru-ordainketa egin beharrik ekartzen; kasu horretan bai, guztiz beharrezkoa litzateke Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzailetza delegatuaren bidez Ingurumen Departamentuan fiskalizazioa egitea. Horren zergatia hauxe da: legeak eta kudeaketa-kontratazioaren oinarri diren baldintza-pleguez adierazten dute kudeaketa hori arrantza-baimenetatik lorturiko diru-sarreraren bitartez finantzatu dela; hau da, esleipen-hartzaile suertatzen denak horren erantzukizuna hartuta.

3.- Esleipen-baldintzek ezartzen dute sozietateak behar bezalako zaintza-lana antolatu behar duela, barrutiak ongi funtzionatzeko. Barrutiek zaintza-lana antolatu izana jasota dauka Zerbitzu honek, arrantza-sasoiaren zehar zuzeneko harremana baitaude, "in situ", Ingurumenzaintzak barrutietara bidaltzen dituen zaindarekin. Bestalde, zaindarek Ingurumenzaintzari laguntza ematen diote amuarrainak askatzeko eta arrantza-kontrolak egiteko.

4.- Horri buruz, ez dago asmo berezirik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 4an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Altsasuko tren geltokiaren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak Altsasuko tren geltokiaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin du Altsasuko tren geltokiaren egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– Nafarroako Gobernuak Gobernu Zentralarekin edo Renferekin urrats edo negoziazioen bat egin du edo egiteko asmorik du arazo horiei irtenbidea aurkitzeko?

– Beharrezkoa da geltokiko eraikina, eraikin osagarriak, teilatuak, barruko departamentuak, sarbideak eta aparkalekuaren patioa eraldatzea.

– Aldez aurreko salmentarako, beharrezkoa litzateke salmenta elektronikoko "SIRE" mahai bat ipintzea.

– Bestalde, Altsasukoa da bi norabideetan doazen eta bertan gelditzen ez diren bi nazioarteko tren (Madril-Paris talgoa eta Paris-Irun-Lisboa "surexpresoa") pasatzen direnako Nafarroako geltoki bakarra; horregatik, Foru Komunitateko bidaiariak Gasteizeraino joan behar izaten dute tren horietan bidaiatzeko.

Galderaren lehenbiziko bi gaiak Sustapen Ministerioaren eta Renferen eskumen osokoak dira; izan ere, geltokiko eraikinaren eta haren

ingurunearen egoerarekin eta hartan ematen diren zerbitzuekin loturiko gaiak dira.

Hirugarren galderari dagokionez, esan behar da Espainiako Renfe eta Frantziako SNCF enpresa operadoreen arteko hitzarmen bati esker funtzionatzen duela zerbitzuak, eta oso irizpide zehatzak erabiltzen dituela egiten diren geldialdiak justifikatzeko gutxienez behar diren bidaiarien kopuruari dagokionez; hain zuzen ere, askoz ere bidaiari gehiago behar dira Altsasuko kasurako aurreikusten direnak baino.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 4an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Itoizko urtegia betetzeak kaltetzen dituen herriek izanen dituzten errepedezko komunikazioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Itoizko urtegia betetzeak kaltetzen dituen herriek izanen dituzten errepedezko komunikazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 19ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Itoizko urtegia betetzeak kaltetzen dituen herriek izanen dituzten errepedezko komunikazioei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbat konponbide aurreikusten ditu kalteturiko herrietarako eta, zehazki, Orotz-Betelurako errepedezko komunikazioak behin betiko konpontzeko?

2.- Konponbideetako zeini ekitea erabaki du Nafarroako Gobernuak?

3.- Erabakitako konponbideak Europako Bataunaren oniritzi eta onespenik ba al dauka?

4.- Exekutatzeko eta funtzionamenduan jartzeko obrak zein epetan egiteko asmoa du?

Egindako galderei buruz esan behar dugu Nafarroako Gobernuak Orotz-Betelura iristeko alternatibei buruzko azterlan berri eta osatua egingen ari dela; hartan, faktore aipagarri guztiak aztertzen dira, bereziki inbertsioaren kostua, kontserbazio-kostuak, ingurumenerako ondorioak eta gizarte onarpena.

Dokumentu horretan oinarriturik, alternatiba egokiena hautatuko da, eta kasua bada, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko deklarazioa egingen da.

Obrak egiteko hamabi eta hemezortzi hilabete bitarte behar dira; obrak aurretiko tramitazioak egin ondoren kontratatuko dira.

Halaber, esan beharra dago Orotz-Beteluko Udaleri informazioa eman izan diogula eta etengabe ematen jarraitzen dugula Nafarroako Gober-

nuak eginiko proposamenei buruz eta egindako eta egiten ari garen tramiteei buruz ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eza-

rritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 4an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Osasun kontseiluen bilerei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Osasun kontseiluen bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du 2000n zehar osasun eskualde oinarrizkoen osasun kontseiluen bilerei buruz. Hona Osasun kontseilarien erantzuna:

Ondokoak izan dira osasun eskualde oinarrizkoen osasun kontseiluek 2000n zehar egin dituzten bileren eta aipatu kontseiluen zerrenda:

OSASUN ETXEAK	KONTSEILU KOPURUA	DATAK
Burlata	2	15.02.2000/26.09.2000
Noain	1	17.02.2000
Zizur	1	09.03.2000
Azkoien	1	25.05.2000
Altsasu	2	11.04.2000/18.10.2000
Berriozar	1	25.10.2000
Auritz	1	12.04.2000
Ermitagaña	2	07.03.2000/07.11.2000
Leitza	2	09.02.2000/07.11.2000
Lesaka	1	19.09.2000
Sanduzelai	2	15.03.2000/20.09.2000
Doneztebe	1	17.05.2000
Valtierra	1	13.04.2000
Cascante	2	18.04.2000/04.10.2000
Buñuel	4	16.03.2000/05.05.2000 12.07.2000/15.11.2000

Bilera horietan eztabaidatu diren proposamenei eta onetsiriko erabakiei dagokienez, honekin batera horietako bakoitzaren gai zerrenda eta aktak bidaltzen ditut.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 3an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Eguzki-energia sustatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak eguzki-energia sustatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak galdera egin du eguzki-energia sustatzeari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1.- Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren martxoaren 29ko 43/2001 Foru Aginduak eguzkitiko energia fotovoltaikoa, eguzkitiko energia termikoa, mikrozentral hidroelektrikoak eta potentzia txikiko energia eolikoa aprobetxatzeko instalazioak sustatzeko fondo galdurako laguntzen deialdia onetsi zuen.

Horretan, diruz lagundu daitezkeen inbertsio gisa jotzen dira, besteak beste, eguzkitiko energia fotovoltaikoaren bidez elektrizitatea sortzeko sistemak, sareari lotuak.

Diru laguntzaren gehieneko muga eguzki eremuko 600 pta/Wpkoa da, eta diru laguntza, gehienez ere, diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 40koa da.

Halaber, horrelako instalazioak sareari lotuak egon daitezzen errazteko, Industria Seguritasunerako Zerbitzuak Energiaren Dibertsifikazio eta Aurrezpenerako Institutura (IDAE) jo eta zenbait urrats eman ditu.

Bestalde, lehen aipaturiko foru aginduak xedatzen duenez, Foru Komunitatearen diru laguntza izateko, beharrezkoa den gutxieneko dokumentazioa eskatzen da.

2.-Une honetan, Mendillorriko Osasun Etxea da Administrazioaren eraikin bakarra eguzki-instalazio termiko bat daukana. Ura berotzeko 25 eguzki-atzizailez osatua dago.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

“Andosilla II” izeneko lurzatieen berrantolamenduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak “Andosilla II” izeneko lurzatieen berrantolamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du “Andosilla II” izeneko lurzatieen berrantolamenduari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1.- Lurzatieen berrantolamenduari buruzko behin betiko erabakia 2001eko otsailaren 9an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Horrela, bada, Nafarroako Gobernuari gora jotzeko errekurtsioak aurkezteko epea 2001eko martxoaren 9an bukatu zen. 24 errekurtsio aurkeztu dira; kopuru hori ukituriko jabeen % 3,18koa da. Beraz, teoriarik, finka berrien edukitza litekeena da.

Dena den, finken zuinketa egiteko bi hilabeteko aurreikuspena abiaburu gisa hartuta, eta laboreen bilakaera nolakoa den, zuinketa horri ekitea zuhurtzigabekeria litzateke, laboreei kalte konponezinak ekarriko bailizkieke.

2.- Hala ere, mahastien birmoldaketarako laguntzen egoera ikusirik, eta sor litezkeen arazo juridikoen itzalpetik atera gabe ere, egoera horretan finken zuinketa egin da.

3. Beranduago, Andosillako Udala kezkatu agertu da, nekazariak ez ote dituzten galduko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ezarritako nekazaritza-ingurumeneko laguntzak, laguntza-eskatzailak finken zuinketa egin ez izanaren ondorioz. Nekazaritzako Egituren Zerbitzuak egoera horretan daudenen zerrenda eskatu dio Andosillako Udalari, haien finken zuinketa egiteko apirila bukatu aurretik, hori baita aipaturiko laguntzak eskatu ahal izateko epe-muga.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Bideko Ama Birjina Ospitaleko pediatria onkologikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Bideko Ama Birjina Ospitaleko pediatria onkologikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin zuen 2001eko martxoaren 18an Bideko Ama Birjina Ospitaleko pediatria onkologikorako beste postu bat ez egoteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du inolako konpromisorik hartu ADANOekin—alegia, Haur Onkologikoei Laguntza Emateko Elkartearekin—2001eko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertzen diren pediat

triako postuak betetzeari dagokionez. Aipatu beharrekoa da denbora guztian esan zaiela postu horiek indarreko araudiari jarraikiz beteko direla; hau da, leku-aldatzearen eta txanda irekiaren bitartez.

ADANOrekin inolako konpromisorik ez dagoenez gero, nekez egon daiteke betetze-mailarik. ADANO elkartearen proposamena ez da baztertu; gertatzen dena da postu horiek betetzeari dagokionez indarra duen araudia betetzera behartuta dagoela Osasun Departamentua.

Une honetan, Pediatriak ez dauka legez onarturiko azpiespezialitaterik; beraz, pediatria orokorraren arloko esperientzia balioetsi behar da, eta, indarreko araudiari jarraikiz, ezin da postua lortu nahi duen ezein pediatra ez eta haren esperientzia bazter utzi. Pediatriako arlo jakin edo azpies-

pezialitate batean –horixe da onkologia– izandako esperientzia balioestea haxe litzateke:

– Indarreko araudia urratzea eta begi-bistako prebarikazioa.

– Aurreikusi ezineko ondorioak izanen lituzkeen aurrekari juridikoa.

– Pediatriako beste arlo edo azpiespezialitate-ekiko tratu bidegabea.

– Deialdiaren berehalako inpugnazioa ekarriko luke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Audenasako langileei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Audenasako langileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Audenasako langileei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Galdegileak Audenasako langileen irazpen, kalte-ordain edo kontratu blindatuen inguruan duen interesa sozietate anonimo bati dagokio, eta Nafarroako Gobernuak ez ditu horren akzio gehienak.

Sozietate anonimoei buruzko Legean xedatutaren arabera, Nafarroako Gobernuko ordezkariak ezin dute eman konpainiako kontseilari diren aldetik eskuratzen duten informazioen berri. Nolanahi ere, galdegileak ezagutu nahi dituen datuak enpresari berari eskatu beharko litzokie.

Hori guztia jakinarazten dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Beaumont Fundazioak Iruñeko Zitudelatan Nafarroako

Arte Garaikidearen Zentroa sortzeko izenpeturiko hitzarmena asmoen adierazpena da, eta beraz Nafarroako Kultura Kontseiluaren irizpenak hitzarmena gauzatu baino lehen bete beharreko lege baldintzak gogorarazi baizik ez du egiten. Hitzarmena joan zen martxoaren 16an izenpetu zenez ezinezkoa da oraingoz erantzun zehatzik ematea zentroak izanen duen garapenez egiten diren galderei.

Hitzarmenari erantsiriko katalogoaren kopia, eskatutakoa, honi atxikirik dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 11n

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

(Oharra: Aipatu kopia foru parlamentariaren eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Langile minusbaliatuentzat lanpostuak legez erreserbatu beharra betetzea dela-eta, enpresak ikuskatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés langile minusbaliatuentzat lanpostuak legez erreserbatu beharra betetzea dela-eta, enpresak ikuskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak galdera egin du langile minusbaliatuentzat lanpostuak legez erreserbatu beharra betetzea dela-eta, enpresak ikuskatzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andreaken erantzuna:

1. Langile minusbaliatuen gaineko ikuskatze programa berariazkorik ez dagoenez ezin ditugu datu horiek eman.

Iruñean, 2001eko apirilaren 18an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturriagaitia Ripoll

Arguedasen parke tematiko bat egiteko aukerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Arguedasen parke tematiko bat egiteko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko apirilaren 2ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Arguedasen parke tematiko bat egiteko aukerari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

1. Parke tematikoa gehienbat kapital pribatukoa denez Nafarroako Gobernuak eta zehazki departamentu honek ez du proiektuan parte hartzeko eskaerarik izan. Turismo Zerbitzuaren iritziz proiektua positiboa da eta Parques Reunidos enpresari laguntza eman dio, zerbitzuak eremuko turismoari buruz eskura dituen datuak jakinaraziz.

2. Ingurumen Departamentuak ez du gaur arte proiektu horren gaineko txostenik luzatzeko inongo eskaerarik jaso, ez eta txostenik luzatu ere.

3. Parques Reunidosok emandako txostena txosten pribatu bat da, prestaketan dagoen eta une hauetan jendaurrekoa ez den proiektu bati buruzkoa. Ez da Nafarroako Gobernuak agindutako lana eta hortaz, Parques Reunidos enpresari eskatu beharko zaio, berarena baita.

Iruñean, 2001eko apirilaren 18an.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturriagagoitia Ripoll

A-68ko Lodosako sarbideari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak A-68ko Lodosako sarbideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du A-68ko Lodosako sarbideari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak aurreikusirik al du Lodosako eskariari, hau da, herritik A-68ra sarbide zuzena izateari erantzuna ematea?

Nafarroako Gobernuaren iritziz, interesgarria da A-68 autobidean beste lotune bat egitea, Lodosako udal mugapean. Hori bai, ongi dakizun bezala, autobide hori Estatuko Administrazioaren kontzesio bat da; beraz, hari dagokio, kasua bada, kontzesio-hartzailearekin hitzarmen bat egitea lotune hori egiteko.

2. Nafarroako Gobernuak harremanik izan al du autobidearen kontzesio hartzailearekin Lodosaren eskaria bideratzeko?

Nafarroako Gobernuak, kontseilari honek 1999ko azaroaren 12an Autopista Vasco-Aragonesako lehendakariari igorritako gutun batez, ekimen horretaz arduratu zen, eta Lodosako Udaleko Osoko Bilkurak hil hartako 4an hartutako erabakiaren kopia bat igorri zion. Kontzesio-hartzailearen erantzuna labur daiteke esanez ustiakuntza-

ren kostuak bere gain hartzeko prest dagoela, baina hirugarren batek egin behar zituela lotune horretako obrak.

3. Nafarroako Gobernuak aztertu al du Nafarroako alde horretarako hain garrantzi handikoa den lotune hori Nafarroako aurrekontu orokorren kargura egiteko aukera?

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Nafarroako Parlamentuak onetsitakoek, ez dute aurreikusten obra hori 2001ean egitea.

4. Abiadura Handiko Trenean aurreikusiriko Castejón-Logroño tartean Lodosa sartzeko negozioak nola daude?

Sustapen Ministerioak Castejón-Logroño bide-tartea abiadura handiko trenbide bihurtzeari buruzko informazio-azterlana adjudikatu berri du.

Informazio-azterlan hori egiten den bitartean, Nafarroako Gobernuak behar diren urratsak emanen ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Egin al du Nafarroako Gobernuak inongo azterlanik antena horien kokagunerik egokiena zein izan daitekeen jakiteko, bai eta antena horiek herritarren osasunean izan ditzaketen kalteak ezagutzeko? Baiezkoan, zein datu lortu dira? zein dira ondorioak? noiz egin zen azterlana?

Ezezkoan, komenigarria iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari horrelako azterlan bat egitea? Noiz egingen du, eta zer baliabide ditu?

Orain arte, Nafarroako Gobernuak ez du berariazko azterlanik batere egin galderan aipatutakoren norabidean.

Horri dagokionez, aipatu behar da Nafarroako Parlamentuak berriki honako testua duen mozio bat onetsi duela:

“Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak har ditzan premiatzea, azterlan sakon bat egiteko Nafarroan kokaturiko eta eraikin publiko edo pribatuetan eta/edo jendea bizi edo pasatzen den lekuetatik hurbil instalaturiko Telefonia Mugikorreko Oinarrizko Estazio deritzen instalazioek emitituriko erradiazio elektromagnetikoari buruz.

Egin beharreko neurketek potentzia-dentsitateko balioak mikroW/cm²-tan eta/edo eremu elektrikoaren balioak V/M-tan adierazi beharko dituzte, etxebizitzetatik eta haien ondoan dauden zona jendetsuetatik hurbil, eta baita eraikinen barnean ere. Neurketa horiek homologatuak izan beharko dute, eta, beraz, legez baliodunak.

Azterlan hori Osasun Publikoaren Institutuak egin beharko du, eta, behar diren teknikariak ez baditu langileen artean, telefonia mugikorreko operatzaileetan zuzeneko interesa duen inongo konpainiarekin zerikusirik ez duen enpresa edo erakunde batek.”

Beharrezkoa dela uste al du arauak aldatu eta ezartzea zein leku edo guneeetan ezinen den telefono antenarik jarri, bai eta arautzea zein izanen

den antena horiek etxebizitzekiko izanen duten gutxieneko tartea?

Telekomunikazioen ikuspegitik, telefonia mugikorreko zerbitzuen arloko administrazio eskudun eta kontzesio-emailea Estatuko Administrazioa da; beraz, hari dagokio halako azpiegiturak antolatzea. Horri dagokionez, publikoki jakina denez, Zientzia eta Teknologia Ministerioa erregelamendu berri bat bultzatzen ari da; erregelamendu horrek, besteak beste, eraikinetako antenen arteko gutxieneko distantzia eta antena horiek emititu dezaketen gehienezko erradiazioa arautzen ditu.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak, bere esku-menen esparruan, zenbait ekintza bultzatu ditu telekomunikazio zerbitzuen hedapen ordenatua errazteko, ingurumenaren gaineko eragina ahal den txikiena izan dadin, hain zuzen ere telefonia mugikorreko zerbitzuetako azpiegiturak elkarrekin erabiltzearen bitartez. Horri dagokionez, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren azaroaren 27ko 1324/2000 Foru Araua eman zuen; haren bitartez, lur urbanizaezinetan dauden telekomuni-

kazioko oinarrizko estazioen erabilera banatzeko prozedura arautzen da.

Aurreko galderan aipatutakoei dagokienez, araututa al dago Espainiako beste erkidegoren batean telefono estazioek nola behar duten? Hala bada, egokituko al dira Nafarroan arau horiek?

Une honetan, ez dakigu inongo arau autonomikorik dagoenik galderan aipaturiko alderdiak berariaz arautzen dituenik.

Edonola ere, ez al litzateke gai hau berdintsu arautu behar Nafarroako udal guztietan?

Nafarroako Gobernuaren ikuspuntutik, komenigarria da Foru Komunitate osorako baldintza uniformeak eskainiko dituen erregulazio-marko bat edukitzea; kasu jakin batzuetan, ordea, baldintza oso bereziak gerta daitezke, eta haietarako gomendagarria izan daiteke berariazko garapen gehigarri bat edukitzea. Marko hori hasieran aipatu dugun Zientzia eta Teknologia Ministerioaren Erregelamenduak eman dezake.

Iruñean, 2001eko apirilaren 18an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---